

# Euskadin, arreta espezializatura eta sistema publikoak erabat estaltzen ez dituen osasun-zerbitzuetara joateko aukera herritarren maila sozioekonomikoaren arabera dago. Hala ere, lehen mailako arretarako, larrialdietarako eta ospitaleratzeetarako aukeran ez dago desberdintasun sozialik

Maite Morteruel eta Unai Martín



Gizarte-talde ahulenetako biztanleek neurri txikiagoan eskuratzen dituzte estaldura publiko osoko espezialitate medikoak eta, halaber, osorik estaltzen ez diren zerbitzuak, era nabarmenagoan gainera, dentista, podologia eta fisioterapia, kasu.

**Iradokitutako aipua:** MORTERUEL, M. Y MARTIN, U. (2020). *Euskadin, arreta espezializatura eta sistema publikoak erabat estaltzen ez dituen osasun-zerbitzuetara joateko aukera herritarren maila sozioekonomikoaren arabera dago*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>




Sintesi modura, dokumentu honek [www.oseki.eus/areas/la-situacion-en-euskadi/sistema-sanitario/](http://www.oseki.eus/areas/la-situacion-en-euskadi/sistema-sanitario/) estekan kontsulta daitezken beste dokumentu batzuetan zabalago aztertu izan diren emaitza nagusiak biltzen ditu. Osasun zerbitzuetarako aukera azaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Osasun Inkestaren bitartez herritarrek inkesta egin aurreko urtean (edo aurreko 6 hilabeteetan, larrialdietako zerbitzuen kasuan) osasun zerbitzu bakoitzera egin zituztela azaldutako kontsultak bildu dira. Emaitzak klase soziala eta hezkuntza maila kontuan hartuta azaltzen dira, eta gizon eta emakumeetan banatuta.

Zerbitzuen estaldura motaren arabera sarbideari erreparatuz gero, ikusten dugu osasun-sistema publikoak erabat finantzatutako zerbitzuek ez dutela desberdintasunik egoera sozioekonomikoa –klase soziala edo ikasketa mailaren arabera– kontuan hartzen badugu, edo horiek txikiagoak direla finantzatu gabeko edo zati batean bakarrik finantzatuta dauden eta erabiltzaileek zuzenean ordaindu behar dituzten baliabideak baino. Zerbitzuak osorik hartuta, gainera, oro har, desberdintasunak handiagoak dira emakumeen artean gizonezkoen artean baino.

Diru publikoarekin osorik finantzatutako zerbitzuen artean, arreta espezializaturako aukeran ematen dira desberdintasun handienak, nagusiki emakumeen artean, 1. grafikoan erakusten denez. Hala, klase sozial mesedetuenaren eta klase sozial behartsuenaren arteko arrakalaren ehuneko 9,1 puntukoa da emakumeen artean, gizonen arteko ehuneko 4 punturen aldean.

### 1. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN ARRETA ESPEZIALIZATURA JOATEKO AUKERAN, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018.




ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 01NARRITUTA

Lehen Mailako Arreta zerbitzuek, larrialdietako zerbitzuek eta ospitaleratzeek, bere aldetik, ez dute desberdintasun handirik azaltzen, apur bat gehiago joaten direlarik klase sozial eta hezkuntza maila baxuenekoak, talde horien osasun-egoera txarragoaren ondorioz. Aldeak zehatzago ikus daitezke dokumentu espezifikoen ([www.oseki.eus/areas/la-situacion-en-euskadi/sistema-sanitario/](http://www.oseki.eus/areas/la-situacion-en-euskadi/sistema-sanitario/))

Diru publikoarekin finantzaten ez diren (podologia) edo zati batean finantzaten diren zerbitzuen artean (fisioterapia eta dentista), desberdintasunik handienak dentista zerbitzuarengana joateko aukeran aurkitzen ditugu. Horretan, hezkuntza maila kontuan hartuta muturreko taldeak eratzten dituztenen arteko arrakala ehuneko 29 punturen inguruan dabil (2. grafikoa).


## 2. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN DENTISTAREN ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018.



ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN OINARRITUTA

Podologia zerbitzuak ere desberdintasunik ageri ditu hura eskuratzerakoan, eta 5,3 eta 6,8 puntuko arrakalak dira hezkuntza maila handieneko eta txikienekoan artean.


## 3. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN PODOLOGIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018.



ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN OINARRITUTA

Eta, azkenik, fisioterapia zerbitzuan, zati batean diru publikoz estalia dena, 3,5eko eta 6,8ko arrakalak agertzen dira, hurrenez hurren, muturreko klase sozialetako gizon eta emakumeen artean.

#### 4. GRAFIKOA. ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, AZKEN URTEAN FISIOTERAPIA ZERBITZURA JOATEKO AUKERAN, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018.



I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA  
ITURRIA: EGILEEK EGINA, 2018KO EAE0IN 01NARRITUTA



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian  
EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)